

Zientzia-lerroak prentsan

Roa Zubia, Guillermo

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Teknologia, osasuna eta informatika izan dira zientzia-gai ohikoena Euskal Herrian editatzen diren egunkarietan 2008ko lehen lau hilabeteetan. Hala ere, egunkarietako azalei begiratuta, sailkapena aldatu egiten da: osasun-gaiak agertu dira gehien azaletan; ondoren, ingurumena eta teknologia, bigarren eta hirugarren postuetan, hurrenez hurren.

HORIEK DIRA ELHUYAR FUNDAZIOAK EGINDAKO AZTERKETA BATEN EMAITZETAKO BATAZUK. Euskal Herrian editatzen den prentsa aztertzea zuten helburu, eta, horretarako, hamaika egunkari aztertu dituzte (*Berria*, *Deia*, *Diario de Navarra*, *El Correo Español*, *El Diario Vasco*, *Gara*, *Le Journal du Pays Basque*, *Diario de Noticias*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de Alava* eta *Sud Ouest*). Azterketan, 2008ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30ean argitaratutako aleak hartu dituzte kontuan. Zientziak prentsan duen presentzia aztertzeko, zientzia-, teknologia- edo berrikuntza-gaiak hizpide dituzten testu guztiak jaso nahi izan dituzte.



G. ROA

Guztira, 6.448 testu jaso dituzte. Testu gehienak gaztelaniaz daude argitaratuta, % 82, hizkuntza horretan argitaratzen baitira aztertutako hedabide gehienak. Testu gehien Vocento taldeko bi egunkarietako argitaratu dituzte,

El Correo Español eta *El Diario Vasco* egunkarietako (932 eta 741 testu, hurrenez hurren), eta sailkapen horretan hirugarrena *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria izan da (715 testu). ➔

Zientzia ez da garrantzitsua

Argitaratutako testu gehienak oso garrantzi txikikoak izan dira (1.089 testu), Richard Budd-en garrantzi-eskala irizpide hartuta (albistearen tamaina, hartzen duen espazioa, orrialdearen zenbakia eta erabilpen grafikoan oinarrituta), eta erabateko garrantzia izan duten testuak, berriz, 55 besterik ez dira izan.


Azterketaren emaitzek argi adierazten dute teknologiarekin, osasunarekin, informatikarekin eta ingurumenarekin lotutako gaiak aukeratu ohi dituztela kazetariak zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-alorreko informazioak lantzean.

Gai horiek lantzean, informazio hutsa —albisteak luzeak eta laburrak— eskaini ohi dute egunkariak, nahiz eta ezin esan daitekeen interpretazio-generoa albo batera uzten dutenik.

Garbi gelditu da, baita ere, egunkariak ez dutela zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko iritzi askorik ematen, eta are gutxiago euren iritzi propioak. Hamaika egunkariak 26 editorial besterik ez dute argitaratu.

“Nahiz eta gutxi izan, gero eta iritzi-artikulu gehiago dago; atentzioa eman

Jasotako testu-kopurua egunkariz egunkari



M. K. URDANGAFIN

dit horrek”, dio Bego Zubiak, azterketaren arduradunak. “Editorialak eta iritzi-artikuluak gutxi dira, baina ugari-

tzen ari dira. Horrek adierazten du gai hauen inguruan hausnartzeko beharra dagoela.”

“editorialak eta iritzi-artikuluak gutxi dira, baina ugaritzen ari dira; gai hauen inguruan hausnartzeko beharra dago”

Positiboak nagusi

Edonola ere, egunkariak zientzia, berrikuntza eta teknologiaren aldeko jarrera dutela esan daiteke, nahiz eta euren zuzenean iritzi hori ez adierazi. Izan ere, argitaratzen diren informazio gehienek ikuspegia positiboa da, nahiz eta kazetaritzan, oro har, albiste bihurtzeko aukera gehiago duten albiste txarrek albiste onak baino.

Garikoitz Otamendik, Ixabel Charritonek eta Bego Zubiak osatu dute lantaldea. Argazkian, Garikoitz Otamendi eta Bego Zubia.



E. CARTÓN

Zientzia komunikabideetan: bi iritzi

Txema Ramirez de la Piscina

EHUko kazetaritza-irakaslea

Komunikabideetan, gero eta hobeto tratatzen da zientzia?

Bai, zalantzarik gabe. Gainera, emaitzak hor daude; zientzia gero eta toki gehiago ari da hartzen komunikabide guztietan, bai prentsan, bai irratan, bai telebistan eta bai Interneten. Horrek esan nahi du kezka egon bada-goela. Askotan esaten da oso gutxi hitz egiten dela zientzia-kazetaritzaz, baina gero mundu guztiak hitz egiten du Genevako LHC azeleragailuaren inguruan; agian, kontakizun huts batekin. Nire lagun bati alabak esan zion munduaren akabera etorriko dela. Pertsona horrek egin duen irakurketa okerra da, baina, gutxienez, horretaz hitz egin da. Duela urte batzuk ia pentsaezina zen horrelako zerbait gertatzea: LHC famatuaren albisteak albis-tegi guztietan azaldu zen.

Nolako da zure esperientzia?

Nik Kazetaritza Espezializatua izeneko ikasgaia irakasten dut Euskal Herriko Unibertsitatean, eta horren barruan sartzen da zientzia-kazetaritza. Galdera bat egiten diet urtero ikasleei: zuen artean nork du gustuko zientzia-kazetaritza? Eta oso gutxi ausartzen dira eskua jasotzera. Askoz arrakasta handiagoa dute beste diziplina batzuek, kirol-kazetaritzak, esate baterako. Horrek ematen du, apur bat, zientzia-kazetaritzaren inguruan gertatzen denaren neurria.

Benetan, aurreiritzi franko daude zientziaren inguruan; betidanik ikusi dugu zaila, aspergarria, elitista eta minoritarioa. Eta batzuetan horrela da. Batzuetan gauzak zaildu egiten dira, edo dibulgatzaileek ez dute asmatzen. Baina egia ere esan behar da: ahalegin ikaragarriak egiten dira, eta gero eta dibulgatzaile hobeak ditugu, toki eta diziplina guztietan. Eta, horri esker, uste dut zientzia-kazetaritza ari dela pixkanaka gero eta gehiago zabal-tzen; alde batetik, zientziaren profileko asko eta asko komunikazioaren eremura etorri direlako, eta, alderantziz ere bai, komunikazioaren mundutik hainbat eta hainbat profesional joan direlako zientziaren mundura. Sinbiosi hori, zubi-lan hori, ezinbestekoa da zientziaren dibulgazioa behar bezala egin ahal izateko.

Zerk egiten du ona zientzia-albiste bat?

Konplexutasuna errazteko kazetariak erabiltzen dituen baliabideek. Esate baterako, oso gai konplexua izan daiteke, baina kazetaria gai baldin bada analogia eder baten bitartez gauzak azaltzeko, oso gertuko adibideak jarri, horrek gauzak erraztuko ditu, eta askoz errazago irentsiko ditu irakurleak edo entzuleak. Baina askotan zaila da.

Lehenik eta behin, kazetariak jakin-mina izan behar du; etengabe egin behar dizkio galderak bere buruari. Betidanik eman diguten bertsio horrekin konformatzen baldin bada, bada, ez du jakinurarik. Eta ezinbestekoa da. Eredu ezezagunetan sartzeko ausardia, Kantek esaten zuen *sapere aude!* (ausartu gaitezen gure kabuz pentsatzen), ezinbestekoa da. Esandakoa: dibulgatzaile ona izateko,



Txema Ramirez de la Piscina

erabili analogiak, erabili metaforak, gertuko adibideak eta umorea, zergatik ez. Beti pentsatu dugu zientzia aspergarria dela, eta hori ez da inolaz ere egia. Ikasi behar dugu entretenimenduaren bitartez dibulgatzen. Hainbat eta hainbat tokitan egunero frogatzen da posible dela, eta gure artean ere lortu behar dugu hori.

Michel Claessens

Europako Batzordeko Ikerketa Zuzendaritza Nagusiaren informazio- eta komunikazio-unitatearen burua.

Komunikabideetan, gero eta hobeto tratatzen da zientzia?

Nire ustez, alde batetik aurrerapenak daude, baina, bestetik, atzerapenak. Aurrerapenak: zientzia-orri onak daude Europako prentsan, eta irrati- eta telebista-programa onak. Gainera, ikusten dut gero eta albistegi gehiagotan ari direla zientzia- eta teknologia-elementuak sartzen. *New York Times* egunkariaren politika jarraitzeko moduko eredu bat da. Gai garrantzitsu bat tratatzeko, beti jartzen dute lanean zientzia-kazetari bat barne duen talde bat.

Adibidez, Irakeko gerraren berri eman zuen taldean, zientzia-kazetari bat zegoen.

Atzerapenak: komunikabide batzuek zailtasunei aurre egin behar diete, bai eta zientzia-kazetari batzuek ere (*freelancer*-en proportzio handiena zientzia-kazetaritzan dago). Eta ikusten da edozein komunikabideetan zientziako zutabeak lehian daudela beste gaietakoekin. Eta komunikabide batzuk erabat utzi diote zientzia tratatzeari. Gure azken Eurobarometroak, 2007ko abenduak, erakutsi zuen, oro har, europarrak pozik daudela komunikabideek zientzia maneiatzeko duten moduarekin.

Zein izan da zure esperientzia?

Esperientzia positiboa izan dut komunikabideekin. Kimikaria naiz, eta gustuko dut esatea zientzialariak eta kazetariak gauza askotan berdinar direla. Hala ere, uste dut zientzialariak ez dutela behar bezala errespetatzen kazetarien lana. Ikerketa-kazetaritza behar-beharrezkoa da demokrazian.

Jarrera ona dute komunikabideek zuek bidaltzen diezen materialaren aurrean?

Oro har, komunikabideen erantzuna ona da. Baina saiitzen gara selektiboak izaten, eta garrantzi gutxi albis-teak eta errealak ez direnak ez dizkiegu bidaltzen, ito ez daitezten. Ikusten dugu kazetariak gustuko dituztela gai bakar bati buruzko informazio-bilerak (uholdeak, osasun-ikerketa eta abar). Horrelakoetan, saiitzen gara Europako ikerketa onena aurkeztzen kazetariari (eta ikertzaile onenak, 3-4 hizlari), eta ikerketa-baliabideak erakusten dizkiegu. Asko gustatzen zaie. Komunikabideetako arazorik handienetako bat da informazio gehiegi dutela. Bilera horiek jatorrizko eta kalitateko informazioa eskaintzen diete kazetariari.



EUROPAKO BATZORDEA

Michel Claessens

Zientzia-, teknologia- eta berrikuntza- alorreko Euskal Herriko zein Europako informazio ofizialak dira nagusi egunkarietan; izan ere, iturrien erdiak baino gehiago, % 60, erakundeak izan ziren. Ezin aipatu gabe utzi testuen % 25ean ez dagoela esaterik albistea non sortu den, edo nor den informazioaren erantzule, egunkariak ez baitute datu hori eman.

Egunkariak zientzia-albistea zein ataletan argitaratzen dituzten ikusteak beste datu interesgarri bat eman du. Azterketa horrek islatu du zientziak, gaur egun, ez duela ikerketarekin bakarrik zerikusia. "Lehen kolpean harritu egin nau zientzia-albiste gehienak aisialdian eta kultura-orrialdeetan izateak" dio Zubiak. "Baina hori aztertuz gero, ez da horren harrigarria, atal horietako gauza askok teknologiarekin zerikusia baitute. Esate baterako,

motorra azaltzen da asko, eta informatika, ordenagailuak eta komunikazio-tresna berriak."

Europari begira

Azterketa Euskal Herrian editatzen den prentsaren isla da, baina lortutako emaitzak azterketa zabalago batzuek emandakoen antzekoak dira. Lan

honek hori ere jaso izan nahi du, eta, horretarako, Europa mailan egindako azterketa batekin alderatu dute. Europako Batasunak 2007ko abenduan plazaratutako azterketa bat da, kazetarien pertzepzioa jasotzen duena, *European Research in the Media: what do Media Professionals think?* (Ikerketa europarra komunikabideetan: zer iritzi dute komunikabideetako profesionalak?).

Konparaketan ikusten da euskal hedabideek zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-gaiak lantzeko hautatzen dituzten gaiak Europako kideek hautatzen dituztenen antzekoak direla, eta albisteen jatorria eta egilea identifikatzeko dituzten arazoak ez direla euskal kazetarienak bakarrik, Europako profesionalek arazo bera nabarmentzen baitute dituzten erronken artean. □

"euskal hedabideek lantzeko hautatzen dituzten zientzia-gaiak Europako kideek hautatzen dituztenen antzekoak dira"

